



**Plan estrategikoa**  
2021-2024

Dokumentu honen helburua da aurkeztea zer printzipio eta baliok bultzatuta jarduten duen **Gizaide Fundazioak** bere eguneko zentroaren eta bizitegi-egoitzen proiektuetan. Dokumentuan bertan, nor garen, zer konbikziok mugiarazten gaituzten eta nola jokatu nahi dugun azaltzen dugu. Era berean, gure erakunde fundatzaileen kristau-tradizioa ere bildu nahi dugu; izan ere, erakunde horiek tinko sentitzen dute beren misioa betetzeko konpromisoa: alegia, baztertutako pertsonen ondoan egotea, beti.

## Osasun mentala dutenen aldeko konpromisoa

Gizaide Fundazioak (1997an Gipuzkoako Caritasek, Angeluko Mariaren Zerbitzarien kongregazioak eta Salestarrek sortua), bere eguneko zentroaren eta bizitegien proiektuetan, errealitate historiko berrira egokitzeko apustua egin du, eta pertsonaren dimentsio guztiak aintzat hartuta eman nahi die arreta osasun mentala dutenei.



## Jarraipen-prozesua

Plan Estrategiko honetan, datozen hiru urteetarako (2021-2023) lehenasunezkoztat jotzen diren orientabideak biltzen dira. Plana egiterakoan, aintzat hartu dira Fundazioko eragile guztiei egindako inkesta baten emaitzak, hain zuzen ere hor islatzen baitira indarguneak, ahulguneak, aukerak eta mehatxuak. Badakigu prozesu horrek lagundu egingo digula jarduera eta ekintza guztien jarraipena eta hausnarketa egiten; hortaz, etengabe berrikusi eta ebaluatu beharrekoa izango da.

## Gure identitatea

Kristau-fundazioa garenez, Plan Estrategiko honek ebanjelioko bi printzipio hartzen ditu oinarritzat: justizia eta elkartasuna. Eta mundu bidezkoago eta senideartekoago bat eraikitzen lagundu nahi du. Fundazioak ikusarazten digunez, osasun integrala sustatzea ezinbestekoa da bizitza duinaren kulturaren alde egiteko. Era berean, gizartean sufrimendu psikikoarekiko kontzientzia piztera bultzatzen gaitu Fundazioak.





## Gure misioa

Gizaidek lagundu egin nahi du bai osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eta bai haien familia-sarearen bizi-kalitatea hobetzen, eta horretarako, edozein motatako neurri eta baliabide egoki eta kalitatezkoak sustatu eta hartu nahi ditu.

Era berean, osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eskubideen alde egingo du, eta gizartea sentzibilizatzeko ahaleginean jarraituko du, gaixotasun mentalari buruz eta horren testuinguruari buruz kontzientzia har dezan.

## Gure ikuspegia

Gizaide Fundazioak, bere eguneko zentroaren eta egoitzen proiektuen bidez, bermatu egin nahi ditu osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen eskubideak, eta, bereziki, segurtatu nahi du gizarte- eta osasun-arreta egokia ematen zaiela, autonomiaren, konfidentzialtasunaren eta ekitatearen printzipioak ziurtatuta. Xedea da esku hartzeko eredu bat ezartzea, arreta ematean pertsona ardatz hartzen duena, eta artatutako pertsonekin

elkarlanean jardungo duena, haiek espero dutena bete dadin saiatzen, eta horretarako, lotura egonkorrak, atseginak eta enpatikoak sortuz. Gizaide Fundazioaren aburuz, pertsona gizartearen parte da, garatzen ari den eta aldakorra den gizarte baten parte, eta, beraz, Fundazioak uste du tratamendu egokia eman behar zaiola pertsonari, ezagutza eta ikerketa berrietara egokitua, eta hori behar bezala betetzen saiatuko da.

## Gure balioak

### Berdintasuna

Pertsona guztien berdintasunean sinesten dugu, arraza, kolore, sexu, hizkuntza, erlijio, iritzi politiko edo bestelako iritzi, jatorri nazional edo sozial, posizio ekonomiko, jaiotza edo beste edozein baldintza bereizi gabe.

### Zintzotasuna

Modu koherentean jokatzeko dugu eta egiten dugu lan, lotura sendoak eta seguruak eratzeko eta talde-giro egokia ahalbidetzeko.

### Konpromisoa

Gure ahalmen guztiak erabiltzen ditugu gaixotasun mentalak dituzten pertsonen arretarik onena emateko, eta pertsona kalteberenei ematen diegu lehentasuna.

### Parte-hartzea

Aukera ematen diegu pertsonen gure ekintzak planifikatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozesuan parte hartzeko, esperientziak partekatuz, eta, hala, identitate komuna haz dadin.

### Autonomia

Erabiltzaileen autonomia eta gaitasunak errespetatu eta sustatzen ditugu, eta beren bizi-proiektuan eragina duten gaitan ardurak har ditzaten eta ahaldundu daitezela sustatzen dugu.

### Duintasuna

Erabat sinesten dugu pertsona guztien duintasunean eta tratatu duina exijitzeko pertsona guztiek duten eskubidean.

### Gardentasuna

Argi jakinarazten dugu zein diren gure helburuak, zer jarduera egiten ditugun helburu horiek lortzeko, eta zer emaitza lortzen ditugun. Hala, gure erakundearekiko konfiantza eta sinesgarritasuna lortzen dugu.

### Erantzukizuna

Gure eginkizunei dagozkien betebeharrak betetzen ditugu.

LEHENENGO ARDATZA - ERABILTZAILEAK

HELBURUAK	ESTRATEGIAK	EKINTZAK
<p><b>1.</b> Eskubideak eta betebeharrak aitortzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskubideen inguruko informazioa ematea.</li> <li>• Pertsonen eskubideen alde egitea, eskubideak urratuak izan daitezkeenean.</li> <li>• Arau eta betebehar sozial nahiz instituzionalak betetzen direla bermatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hainbat arlo eta testuingurutan dauden eskubide eta betebeharrei buruzko tailerrak.</li> <li>• Gerta daitezkeen egoera zehaztetan esku hartzea.</li> </ul>
<p><b>2.</b> Gizartearen eta familiaren laguntza.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familia- eta gizarte-harreman osasuntsuak sustatzea.</li> <li>• Baliabidetik kanpo pertsonen arteko topaketak ahalbidetzea.</li> <li>• Haustura eta distantzia hartzeko prozesuetan lagun egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Familiako pertsonekin kontaktua.</li> <li>• Lagunekin kontaktua.</li> <li>• Boluntarioekin hitzorduak.</li> <li>• Entzute-eremuak edo tutoretzak.</li> </ul>
<p><b>3.</b> Esku hartzeko ereduak lantzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsonen autonomia sustatzea.</li> <li>• Edozein motatako jarduera eta gaitasunetan egunez egun laguntza ematea.</li> <li>• Entzute aktiborako espazioak ahalbidetzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiltzaileen iritzia errespetatzea, haien osotasuna edo hirugarren pertsonena arriskuan jarri gabe.</li> <li>• Ezarritako helburuak betetzeko tresnak ematea.</li> <li>• Elkarrizketa- eta entzute-aldiak adostea.</li> </ul>

<p><b>4.</b> Jarduketa-esparrua</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Barne-araudia egokitzea.</li> <li>• Baliabidean sartzean, zerbitzuen esparruari buruzko informazioa ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baliabide guztietara sartzeko kontratu eta araudiak berrikustea.</li> <li>• Baliabidearen araudia elkarrekin irakurtzea, baliabidean sartzen den lehen hilabetean.</li> </ul>
<p><b>5.</b> Lagun-egitea ahalbidetzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagun-egitea bermatzea, beharrezkoa denean (kudeatzeko zailtasunengatik, bakarrik egoteagatik, etab.)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagun egitea.</li> </ul>

BIGARREN ARDATZA - ERAGILEAK

HELBURUAK	ESTRATEGIAK	EKINTZAK
<p><b>1.</b> Kontratututako langileak motibatu eta zaintzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urteko prestakuntza-plana ematea.</li> <li>• Informazioa partekatzeko eta koordinazioa eta talde-sentimendua hobetzeko espazioak eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza-ikastaroak egitea.</li> <li>• Taldeko edo alde-biko bilerak egitea.</li> <li>• Agendan bilerak zehaztea.</li> </ul>
<p><b>2.</b> Boluntarioak sustatu, motibatu eta zaintzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Boluntarioen harrera-plan bat egitea.</li> <li>• Boluntarioak lortzea sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Boluntarioen plan bat egitea.</li> <li>• Prestakuntza eskaintzea</li> <li>• Webgunean boluntarioen atal bat sartzea.</li> </ul>

HELBURUAK	ESTRATEGIAK	EKINTZAK
1. Osasun mentalari buruz sentsibilizatzea eta estigmaren aurka borrokatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun mentalari buruzko sentsibilizazioa areagotzea.</li> <li>Estigmaren aurka borrokatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun mentalari buruzko ekintzak antolatzea.</li> <li>Hedabide eta sareetan zabaltzea.</li> <li>Fundazioaren bloga elikatzea.</li> </ul>
2. Sareak: gizarteko beste erakunde batzuekiko zubiak eta lankidetzak.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun mentaleko arloko beste erakunde batzuekin jardunaldietan parte hartzea.</li> <li>Osasun mentalarekin lotuta ez dauden talde sozialekin harremanak sortu eta mantentzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laneko bilerak eta topaketak.</li> <li>Elkar ezagutzeko eta dibulgaziorako topaketak eta bilerak.</li> </ul>
3. Inguruan parte hartzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zentro sozialetako, kulturaletako... jardueretan parte hartzea.</li> <li>Aisiarako eta aisialdirako eremuak adieraztea.</li> <li>Gizaidetik kanpo jarduerak antolatzea eta babestea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Entitate sozialekin, kulturekin... jarduerak egitea.</li> <li>Boluntarioekin jarduerak egitea.</li> <li>Ikasturte hasieran jardueri buruzko informazioa ematea.</li> </ul>
4. Osasun mentalak gizartean duen lekua aldarrikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzearen aldeko jarrerak argitaratzea eta gizarteratzea.</li> <li>Giza eskubideen urraketen aurkako eragin politikoa edo jarrera instituzionala.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Osasun mentaleko egunaren inguruko txostena egitea.</li> <li>Osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak gizarteratzearen aldeko kanpainetara atxikitzea.</li> </ul>

HELBURUAK	ESTRATEGIAK	EKINTZAK
1. Baliabide materialak eta higiezinak egokitzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Urtean gutxienez espazio bat hobetzea (espazioa, altzariak, etab. berritzea).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Patioa berritzea.</li> </ul>
2. Fundazio-balioen garrantzia azpimarratzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Patronatuarekin harremana izatea, identitateak iraun dezan.</li> <li>Erakunde osoan aitortutako balio erantsia lantzea.</li> <li>Berdintasuna eta sexuagatiko diskriminaziorik eza bermatzeko alderdi guztiak lantzea.</li> <li>Hizkuntza-normalizazioa bermatzeko lan egitea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Patronatuarekin bilerak.</li> <li>Pertsona bakoitzari entzuteko espazioak.</li> <li>Berdintasun Plana betetzea.</li> <li>Hizkuntza-normalizazioko plana betetzea.</li> </ul>
3. Gardentasunez eta eraginkortasunez lan egitea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Informazioa eta jarraibideak ahalbidetzea, proiektuetan lan egiten duten eta parte hartzen duten pertsonen segurtasuna emateko.</li> <li>Informazioa partekatzeko espazioak ahalbidetzea.</li> <li>Teknologia berriak erabiltzea sustatzea, informazioa partekatzea errazagoa izan dadin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hainbat egoeraren aurrean protokoloak egitea.</li> <li>Langile eta boluntario guztiekin gutxienez bilera bat egitea, urteko auditoretzaren eta plan estrategikoaren garapen-mailaren berri emateko.</li> <li>Teknologia berrien arloan prestatzea.</li> </ul>

<p><b>4.</b> Osasun mentalaren arlorako estrategiak berritzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Erakundearen prestakuntza-planak planteatzea, baita beste erakunde batzuekin elkarlanean ere.</li> <li>◉ Barne-proiektu berriak sortzeko espazioak irekitzea.</li> <li>◉ Gizaideren jarduketa-arloko beste erakunde batzuen ekintza eta proiektuetan parte hartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Prestakuntza-ikastaroak.</li> <li>◉ Proiektuetan parte hartzea.</li> <li>◉ Teknologia berriak sartzea.</li> </ul>
<p><b>5.</b> Kudeaketa-eredua eta araudia.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Jardute-esparruak sistematizatzea.</li> <li>◉ Informazio-kanalak sortzea, eguneko zentroaren eta egoitzen artean proiektuei buruzko informazio-fluxua errazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Parte hartzeko mekanismoak ezartzea.</li> </ul>
<p><b>6.</b> Lankidetzan aritzea administrazioarekin.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Administrazioarekin komunikazio-bideak mantentzea.</li> <li>◉ Administrazioarekiko sinergiak lantzen saiatzea, lankidetzan-lanen eta beste batzuen bidez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Hitzarmen eta kontratuak berrikustea eta sinatzea.</li> <li>◉ Aldizkako bilerak.</li> <li>◉ Aurkeztutako gaietan laguntzea.</li> <li>◉ Geure praktikan oinarrituta, proposamen eta ideiak ematea.</li> </ul>
<p><b>7.</b> Beste erakunde batzuekiko koordinazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Beste erakunde batzuei gure jardueren berri ematea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◉ Bileretan eta baterako espazioetan parte hartzea.</li> </ul>